

# erdiko kaiera

Literatura

**Egunero hasten delakoren 40. urteurrena**

## Eleberri modernista baten blasfemia jakingabea



40 urte pasa dira Ramon Saizarbitoriak *Egunero hasten delako* nobela idatzi zuenetik. 40 urte, baina gaur gaurko liburuak izaten jarraitzen du, eta sekretuz betea dago, nork deskubrituko zain. Mikel Hernández Abaituak nobelaren azalean aurkitu du horietako sekretu bat. Mamian ere bai, “lehen euskal eleberri modernoa”-ren inguruan egon daitezkeen eztabaidetarako ikuspuntu aldaketa proposatu baitu ondorengo artikuluan.

MIKEL HERNÁNDEZ ABAITUA

IBON SARASOLAK lehen euskal eleberri modernotzat aspaldi jo zuen liburuak berrogei urte betetzen ditu 2009an. Lehen edizioaren hasierako orrialdeetan agertzen den informazioaren arabera 1969ko azaroan atera zen inprimategitik. Liburuaren bukaeran aitortzen denez, ordea, 1968an bukatu zuen Saizarbitoriak lehen idazketa, eta autoreak garbira pasatutako kopia txukun bakarra

Ezkerrean Bernadette Soubirous, Lourdeseko kartel batean. Eskuinean *Egunero hasten delako* nobelaren azala.

Ibon Sarasolari bidali zion Suitzako Friburgotik bion laguna zen neska baten bidez. Neska horrek, trenez bidaiatu ondoren, Donostiako Duque de Mandas kaleko Sarasolaren gurasoen etxeko gutunontzian utzi zuen eskuizkribua. Zorionez, liburuaren kopia txukun bakar hori ez zen galdu bidaiari gorabeheratsuan. Sarasolari asko gustatu zitzaion eta beronen hitzaurrearekin kaleratu



zen LUR argitaletxean. Horretarako frankismoaren zentsura gainditu behar izan zuen, baita lortu ere, harrigarri samarra gertatzen dena garai hartan euskaraz idatzitako abortatze eskubidearen aldeko liburu baterako. Diktadurak ez dira beti gauza guztietan hutseginezinak. Batzuetan zirrikituak uzten dituzte. Gainera, zenbait gaitan estatu frankistaren jarrera apur bat bigundu zen denboraren poderioz, eta horrela ikastolek, euskal aldizkariak eta euskal kantagintza berriak oztopo guztien gainetik egin zuten aurrera (agian harrigarria gerta lekiok baten bati telebista frankistan euskarazko programa bat zegoela jakitea). Kasu batzuetan diktaduraren egituraren integratuta zeuden euskaldun batzuek, beren kolaborazionismoagatik errudun sentitzen zirenak ziur aski, laguntza emateko gogoia ukan zezaketzen zenbait alor kulturaletan une zehatzetan; zentsuraren alorrean esaterako. Halaxe gertatzen zen batzuetan, gaur egun gezurra badirudi ere. Horietako baten laguntza izan zuen autoreak zentsura pasatzeko, Asteasun jaiotako Arrue abokatu euskaltzain frankista tradizionalista eta Francoren Gorteetako prokuradorea hain zuzen ere, Saizarbitoriak berak liburuaren 2008ko edizio berri-tuaren hitzaurrean dioen bezala. Honek ez du esan nahi zentsura frankista gogorra izan ez zenik gehienetan, baina, behar-bada, kasu honetan euskaraz idatzia izateak lagundu egin zion liburuari diktadura katolikoaren zentsura pasatzen, nekez pentsa baitaiteke argi eta garbi abortatze eskubidearen aldeko gaztelaniazko eleberri batek hori lor zezakeenik.

Gorago aipatutako hitzaurre horretan Saizarbitoriak berak kontatzen duenez, diktaduraren zentsura bera baino gogorragoa gertatu zitzaion garai hartan Gipuzkoako Diputazioko Liburutegiko zuzendaria zen José de Artechek idazleak liburutegian zegoen jende guztiaren aurrean donostiar idazle gazteari egin zion errieta. Lehen argitalpenaren azala Alberto Corazón diseinatzaileak egin zuen, eta jakina denez, bertan neska baten aurpegia azaltzen da. Artechek Lourdeseko Santa Bernadette Soubirousen antza hartu zion eta abortatu egiten duen protagonista irudikatze asmoz santa baten imajina jar-tzea apropos egindako gauza zela pentsatu bide zuen, eta blasfemia itzela iruditu. Saizarbitoria harrirituta gelditu zen gehiegikeria nabarmena iruditzen zitzaionaren aurrean, baina pasadizoak bultzatuta, aurrerago Alberto Corazóni galdetu zion ea asmo horrekin egin zuenentz azala, eta ezetz eran-

### **Agian Egunero hasten delako ez da lehen euskal eleberri modernoa, baina bai lehen euskal eleberri modernista anglosaxoiek ulertzen duten moduan**

tzun zion honek, berarentzat familia bezalako zen Donostiako Castells-Artetxetarretako neska bat zela. Errieta horrengatik Alberto Corazónen marrazki hori hurrengo argitalpen guztietan ager zedin erabaki zuen Saizarbitoriak. Urte askotan zehar autoreak berak eta beste anitzek bezala nik ere pentsatu nuen halabehear hutsa zela santa horri egindako zenbait argazkitan agertzen zena-ren antzekoa izatea Saizarbitoriaren lehen liburuaren azaleko neska, 2008ko udan kasualitatez Lourdesen egon nintzen arte. Lourdeseko agerpenen 150. urtea zelebratzen ari ziren eta horregatik Sainte Bernadette Soubirousen argazki bat herriko farola eta hesola guztietatik zeukaten zintzilik. Autotik jaitsi nintzenez harrirituta gelditu nintzen, *Egunero hasten delakoren* publizitate-kanpaina orokor baten aurrean aurkitzen nintzelako sentsazio izan bainuen. Santaren argazki bat baino gehiago nituen ikusita, eta antza zuten arren, bat ere ez zen hurbiltzen Alberto Corazónen marrazkira hura bezainbeste. Berdin-berdinak ziren. Azkenean egia zen, diseinatzaile famatuak kontrakoa esan arren, santa baten argazkian oinarritu zen abortatzen zuen neska baten aurpegia irudikatze, edozein katolikorentzat blasfemia garbia. Honek are harrigarriagoa egiten du Saizarbitoriaren lehen liburua frankismoaren garaian argitaratu izana.

### **Lehen eleberri modernoa ala lehen eleberri modernista?**

Azal kontuak alde batera utzita, jo dezagun literaturari berari dagokionez askoz garrantzitsuagoa den kontu batera. Azken urteotan hainbat kritikarik adierazi dute, Ibon Sarasolak aspaldi esandakoaren kontra, *Egunero hasten delako* ez dela lehen euskal eleberri modernoa, eta ohore hori Txillardegiren *Leturiaren egunkari ezkontua*-ri dagokiola. Ez dakit arrazoi duten ala ez, ziur aski bai, baina lehen-lehenik ongi zehaztu behar genuke zer den eleberri modernoa, eta gero alderatu Txillardegi eta Saizarbitoriaren lehen eleberri horiekin. Lan ederra dago hor azterketa erkatzaile interesgarri baterako. Agian *Egunero hasten delako* ez da lehen euskal eleberri modernoa, baina bai lehen euskal eleberri modernista anglosaxoiek ulertzen duten moduan (ez inolaz ere hispanoamerikarrek edo espainiarrek bezala), hau da, XIX. mendeko bukaeran eta batez ere XX. mendeko lehen hamarkadetan ingelesez landu ziren joera literario abangoardisten multzoan sailkatzen den literatura mota, zeinaren barruan hainbat poetaz eta antzerkigilez gain, James Joyce, Virginia Woolf, John Dos Passos, Gertrude Stein

edo William Faulkner bezalako eleberrigileak sailkatzen diren. Modernismo anglosaxoia literatur forma tradizionalen kontra agertzen da, hala nola hauei dagozkien pertzepzio estetikoaren aurka, eta horregatik, joera esperimentatzaile setatsua alde (honen adierazle garrantzitsuenak, ziur aski, *stream of consciousness* edo barne-bakarrizketa eta joera objektibista lirateke). Korrante horretan, beraz, forma berrien bilakuntza nahitaezkoa da errealtatea modu berri eta aberatsago batez islatzeko. Begien bistakoa da *Nouveau Roman* mugimendu frantsesa idazle abangoardista modernista horien erradikalizazioa dela, eta hortik dator kio Saizarbitoriari batak zein besteak hainbeste gustatzea. Baina gauzak asko nahastu ohi dira, mugak oso garbi ez daudelako batzuetan. *Nouveau Roman*-ak

**Behoko argazkian, Ramon Saizarbitoria. 40 urte bete ditu aurten bere Egunero hasten delako eleberririk.**

AMAIA LINARES



bi joera garbi ditu Jean Ricardouren ustez, *la fase molle* hasieran, hau da, eleberririk modernista anglosaxoiarekin bat datorrena gutxi gorabehera, eta *la fase dure* aurrerago, hau da, benetako *Nouveau Roman*-a (gehi *la fase molle* delakora itzultzeko azken nahi bat, Ricardouren ustez traizio hutsa). *Nouveau Roman*-a eleberririk modernoa eta modernista da, baina edozein eleberririk moderno ez da *Nouveau Roman*, eleberririk moderno guztiak modernistak ez diren bezala (Txillardegiren lehen eleberririk agian modernoa da, baina garbi dago ez dela modernista zentzu anglosaxoian). Saizarbitoriaren lehen liburua eleberririk modernista anglosaxoi horien artean sailka daitekeen arren, nekez iritsiko litzateke *Nouveau Roman*-eko *la fase molle*-ra ere (100 metro gehiago hurbilduko litzateke, eta *Ene*

*Jesus* arazo gutxirekin sailka liteke *la fase dure* delakoan).

Beraz, agian Saizarbitoriaren lehen eleberririk ez da lehen euskal eleberririk modernoa, baina bai lehen euskal eleberririk modernista zentzu anglosaxoian (lehen eleberririk abangoardista), zeinean formaren modernotasuna oso garrantzitsua den. Txillardegiren lehen eleberririk oso urrutiko dago eleberririk mota horretatik.

### Hasierako harrera epela eta geroagoko harrera arrakastatsua

Harrerarik dagokionez gogora dezagun hasieran eleberririk ez zuela salmenta arrakastarik izan (garai hartan ohikoa zena euskal liburu gehien kasuan), ezta kritikaren aldetik ere. Urte askotan zehar pentsatu nuen ez zitzaizkio artikulu bat ere dedikatu argitaratu zenean. Ez nuen ezein bibliografiatan erreferentziarik bat ere aurkitu. Donostiako Koldo Mitxelena liburutegira joan, hemerroteka arakatu, eta garai hartako Zeruko ARGIA guztiak miatu ostean aipu txiki bat baino ez nuen aurkitu beste liburu asko aipatzen ziren artikulu batean, baina ez benetako kritika. Donostiako biblioteketan urte haietako *Anaitasuna* aldizkariaren alerik ez zegoenez gero, Lazkaoko beneditarren komentura jo nuen, 1969-1971ko *Anaitasuna* guztiak aztertuz gero zer edo zer agertuko zen esperantzaz. Halaxe topatu nuen Xabier Gereñok idatzitako laudoriozko artikulu ahaztua (urte batzuk geroago Interneten zintzilikatuta ikusiko nuen zorionez). Orduko lekuko batzuek kontatu zidatenez, ahoz ahoko iruzkinak oso ugariak izan ziren eta testigantza batzuen arabera Saizarbitoriaren eleberririk oso polemikoa izan zen euskal kulturaren zirkulu minoritario batzuetan.

Zeren eta liburuaren egitura ez ezik bertan jorratzen zen gaia ere oso modernoa baitzen. Eta jakin nahi nuke urte haietako literatura unibertsalean abortatzeko eskubidearen aldeko zenbat eleberririk argitaratu ziren Saizarbitoriarena baino lehenago. Ez asko agian. Zoriturrez liburuaren gaia ez da modaz pasatu, zeren-eta abortatzeko eskubidea debekatuta baitago oraindik estatu askotan, eta legeztatuta dagoen batzuetan oztopo handiak ezagutzen ditu. Horregatik eta beste arrazoi batzuegatik, hala nola euskal literaturaren historian duen leku garrantzitsuagatik eta bere kalitate ukazinatik, edizio asko ezaugu dituzte *Egunero hasten delakok*. Ez zen *best-seller* bat izan argitaratu zenean, baina *long-seller* harrigarria izan da urte askotan zehar. Eta oraino ere saltzen da oso ondo. ■